



## 2014KO JAI NAGUSIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Hondarribiko Udaleko Kultura Sailak 2014ko Jai Nagusietako Argazki Lehiaketa antolatu du, ondoko baldintzen arabera:

**PARTAIDETZA.-** Lehiaketa honetan edonork parte har dezake.

**GAIA.- Libre** - Hondarribiko Udalerrian.

**MODALITATEA.-** Argazkiak, koloretan edo zuri-beltzean.

**LANAK ETA AURKEZPENA:** Partaide bakoitzak gehienez lau argazki aurkez ditzake saritu edota argitaratu gabeak. Ezinbesteko neurria: 20 x 30 zmtro. (printatutako azalera) eta markorik gabe.

Lanaren atzekaldean izen bat idatziko da eta horrekin batera datorren kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren edo lanen izen berdina.

Kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, N.A.N.ren fotokopia eta telefonoa idatziko dira.

Lanak norberak eramanda edo postaz nahiz mezulari bitartez bidalita honako helbide honetara eraman ahal izango dira:

**Hondarribiko Udala - BAZ**  
**Kale Nagusia, 20**  
**20280 Hondarribia (Gipuzkoa)**  
**Ordutegia: 09:00etatik 13:30era (astelehenetik ostiralera)**

gutunazalean adierazi beharko duelarik "2014ko Jai Nagusietako Argazki Lehiaketa", 2014ko uztailaren 21eko 13:30 orduak baino lehen.

**ERAKUSKETA.-** Aurkeztutako argazkiak erakutsiko dira abuztuaren 25etik irailaren 19ra, Zuloaga Etxean.

### SARIAK:

1. Saria: 500,00 €
2. Saria: 400,00 €
3. Saria: 300,00 €

Sari hauei P.F.G.Z.ri dagokiona kenduko zaie.



**SARI BANAKETA.-** Jai Nagusietan egingo da.

**OHARRAK:**

- Udalak web orrian ([www.hondarribia.org](http://www.hondarribia.org)) berak hala nahi gabe gerta litezkeen aldaeren berri emango du.
- Saritutako argazkiak argitaratu edo erakusketan azaltzeko Udalarenak izango dira, guztietan horien egileak aipatuko direlarik, eta egileek lan osoaren jabeak direlako ardura hartuko dutelarik.
- Aurkezten diren lanen neurriak, oinarrietan eskatutakoak izango dira. Hala izango ez balitz, ez dira erakusketan jarriko.
- Lehiatzaile bakoitzak sari bat besterik ezingo du jaso.
- Saritutako argazkien jabea Udala izango da.
- Lehiatzaileek baimena eman beharko dute, antolatzaileen iritziz merezi duten lan guztiak argitaratzeko.
- Antolatzaileek ahalik eta hobeki zainduko dituzte argazki hauek, baina hondatu edo galduko balira, ez lukete inolako erantzunkizunik izango.
- Lanak, Udal BAZeko bulegoetatik (Kale Nagusia, 20 - behe) jaso ahal izango dira irailaren 24etik 26ra, eguerdiko 12:00etatik 13:30era. Aipatutako epean jasotzen ez diren lanak ulertuko da uko egiten dietela.
- Lehiaketa honetan parte hartzearekin, baldintza hauek erabat onartutzat ematen dira.
- Epaimahaikoen ustez aurkeztutako lanak saria jasotzeko behar adineko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango ditu.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Hondarribian, 2014ko uztailaren 3an  
**JARDUNEKO ALKATEA,**



**Izp.: Txomin Sagarzazu Ancisar**

**HONDARRIBIKO UDALA**